

## “Akaso eskatzen dugun telebista daukagu”

Izibene Oñederra | Hezurbeltzak

Animaziozko zinegile saritu eta telebistako kritikari batekin topo egitea, animaziozko kritika batekin etxeratzea balitz?

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

**Hara bere lanari buruz hitz egin dadin sariak irabazi behar dituen bat!**

Medioetan agertzea tranpatia da. Jendeak ba al daki zeri eman dioten saria? Pelikula ikusi al du? Kuriositatea piztu al zaio?

**Aizu, ez zaude medioetan agertzeri derrigortuta, e.**

Agian nahiago nuke etxean gelditu eta sortzen segi. Ez dut hedabideetan pertsonaia bat sortu nahi nire produktua saltzeko.

**Produktua esplikatzeko ez al da produktua saltzea?**

Askotan esan dut nire lanetan ez dakidala zergatik dauden gauzak dauden bezala. Baina xelebrea izateaz gain, gaizki gelditzen da. Medioentzako erantzun bat ematera behartuta zaude, eta ahal dela, esan nahi duzuna erantzun horretan kabitzen.

**Ohituta egongo zara, nazioartean hainbeste sari irabazita...**

*Hezurbeltzak*-i bide egokiak eman zaizkio, maite izan da, eta iritsi egin da. Gainera, antzeko erreakzioak sortu ditu hemen eta Hong-Kong-en. Artea unibertetsala da, eta zerbait benetan egiten baduzu, zergatik ez du munduko edozeinek sentituko?

**Hainbeste mundu ikusita jakingo duzu zerk funtzionatzen duen.**

Baina funtzionatzen duela baldin badakizu zergatik segi horrekin? Beti dago kanpotik zirri egiten dizun zerbait, une batetik bestera, dena aldatu dezakeena. Kontua ez da marrazki politik egitea, eragitea baiziki.

**Berriz esango dute zure lana “esperimental” dela!**

Hori “pelikula arraro bat ikustera zoazte” esateko modu bat da. Ez ditut animazio tradizionalaren eta lengoaia zinematografikoaren arauak betetzen, beraz pelikula esperimental da.

**Zu bai neska ausarta...**

Konbentzitzen zaituena egiten ari bazara ez daukazu ausarta zaren sentsazioerik. Egin eta kito.

**Telebista kritiko izateak konbentzitzen zaitu?**

Ez naiz hala kontsideratzen. Ezin diot garrantzia handirik eman, bestela hitz bakoitzean blokeatuko nintzateke. Batzuetan beldurgarria iruditzen zait.

**Sentitzen dut baina ez zaitut erruki...**

Letrak hor geratzen dira, betiko. Zuk ahaztutakoan ere norbaitek gogorarazi diezazuke idatzitakoa. Pentsa, amorrua ematen dit, baina agertzen naizenetik ez dut *Berrira* ikusteko gogorik izaten.

**ETB hain da perfektua...**

Uste dut jende askok ETB delako ikusten duela ETB. Akaso eskatzen dugun telebista daukagu. Ez da erabat hola, baina...

**Horixe entzutea bakarrik falta genuen!**

Gauza batzuk oso interesgarriak dira, beste batzuk oso epelak, eta beste batzuk ezin irentsi... Zergatik ez dute film laburrik jarritzen? ■